

# Euliskea



**Jakoba Errekondo**  
jakoba@bizibaratzea.eus

Euli izugarria edo euli uxagarria da euliskea. Soroetan txori izugarriak edo txorimaloak bezala, etxe inguruan euliskea jartzeko sasoi etorri da. Aurten, gainera, udaberria freskotik doa, eta, beroak gorri-belzteko sasoi etortzen denean, orduan izango da isilduko ez den euli-burrundara, sekulakoa.

Badator euli, eltxo, liztor, eulitzar, euli beltz, ezpara, euli alfer, eulitxa, euli berde, eulimando, eulihandi eta haragi euli samalda. Geure haragietara heldu eta txista egin eta azkura lehenik eta pikorta gorri gogaikarria gero nahi ez badugu, aurrea hartu. Guregandik uxatu nahi baditugu usainekin jokatzeko da gakoa. Usainez jantzitako landareek babesa eraikitzen dute esentzia bizi horiekin. Euli eta abar, fuera! Gustuko ez dituzten usainek gotortzen gaituzte; sudurretik jotzen ikasi beharrean gaude.

Zitroin edo limoi usaina lehena. Landareetan ugari samarra; etxeratzeko errazak direnak, edozein landare saltegitan aurkituko dituzunak: limoi-belarra (*Cymbopogon citratus*), luisa-belarra (*Aloysia citrodora*), ezkai limoiusaina (*Thymus x citriodorus*), garraixka (*Melissa officinalis*) eta albahaka limoiusaina (*Ocimum x citriodorum*). Limoi tanke-rako usaina du *Artemisia abrotanum*-ek ere. Hori asentsio-belarraren lehengu-



Ezkai limoiusaina (*Thymus x citriodorus*), edozein landare saltegitan aurkitzeko moduko euli uxatzaile bikaina.

ANDREY KORZUN-CC BY SA

su da, *Artemisia absinthium*. Azken horrek limoitik oso urrun dagoen usaina hedatzen du, baina intsektuak izutzeko ere erreminta ederra da.

Aliazeo jendea (*Allium sp.*), tipularrak eta baratxuria ere usainez ondo hornitutakoak dira, eta intsektu jende gehienarentzat kiratsa dutenez, uxa-uxa! Antzeko lana egiten dute menda sendikoek (*Mentha sp.*); familia ugaria osatzen dute, eta denek dute usain sarkorra, guretzat gozoak direnak usain keruak dira eulientzat.

Nikotina txarra dela ere badakite euliek, inork eskolan erakutsi beharrik gabe. Loretarako, apaingarri erabiltzen den tabako-belarra (*Nicotiana sp.*) ez dute ikusi ere egin nahi. Antzera jokatzen duten izpilikuarekin (*Lavandula angustifolia*), lantanarekin (*Lantana camara*) eta usaineko geranioekin (*Pelargonium roseum*, *Pelargonium graveolens*...)

Gu usainez jantzi, ingurua lorez eta hostoz dotoretu eta euli jendilajea uxatu, a zer pagotxa! ■



## ARGIA 2017ko egutegia

**Ez beldurrik izan datorrenari...  
eskatu orain 2017ko ARGIAren egutegia  
eta irailean eskuratuko duzu**

☎ 943 371 545 · [www.argia.eus/denda](http://www.argia.eus/denda) · [denda@argia.eus](mailto:denda@argia.eus)

9€

Egutegia

50€

Egurrezko  
taula  
egutegia  
opari